

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Sabina Odriozola Igartua

*Oñati, Gipuzkoa
(1934-2024)*

Aurkibidea



Biografia



Arantzazuko Aixkirri baserrian jaio zen. Aita Lasarekin ikasi zuen Arantzazuko eskola-etxean. Aita Aixkirrikoa bertakoa zuen eta ama Azpilletakoa. Aita astazaina izan zen gerra iritsi zen arte eta gero idi parearekin ibili zen ikatz-garraioan. Hainbat lekutan ibili zen lanean Karmen ahizparekin batera: Aixkirrin, Arantzazuko Milikua tabernajetetxean, Bergarako Zubikoa baserrian, Hernanin eta Asturiasen. Parisera joan eta 35 urte bertan egin ostean itzuli zen Oñatira. Alaba bat dauka. Karmen ahizparekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

ONA-091

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-05-11
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Arantzazura eskolara

- **Erref:** ONA-091/002
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:00:52. **Bukatu:** 00:02:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Arantzazuko Eskola-etxean frantziskotarrek ematen zuten eskolara joaten zen Karmen, oinez, eta bazkaria zapi batean batuta zeramala. Sabina ere berdin-berdin joan zen, baina lau urte geroago.

2. Fraideak eta Euskal Meza

- **Erref:** ONA-091/003
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:02:58. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Eguraldi txarrarekin ezin izaten zuten eskolara joan. Zazpi urterekin hasi eta 12 urtera bitartean ibili ziren eskolan. Aita Agirre, Aita Sarrigoitia eta Aita Lasa izan zituzten irakasle. Hilean behin, goizeko zortzietan Euskal Meza izaten zuten Arantzazun. Meza kantatua izaten zen.

3. Dotrina eta meza kantuak

- **Erref:** ONA-091/004
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Auzoko umeek Gesaltza baserrian ikasten zituzten dotrina eta meza kantuak, fraideek irakatsita. Euskara debekatu zutenean, euskal mezak bere hartan jarraitu zuen. Gainontzeko mezak latinez izaten ziren. Meza osoa fraideek eta eliz mutilek egiten zuten; fededunek entzun bakarrik.

4. Euskal Mezako kontuak

- **Erref:** ONA-091/006
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:08:18. **Bukatu:** 00:11:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserria » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Euskal Meza gazteentzako bakarrik izaten zen, eta Arantzazutik aparte ez zuten holakorik ematen, Karmenen ustetan. Kamenek gogoan du mendian ardiak jetzi ondoren, baraurik joaten zela zortzietako Euskal Mezara. Eskola umeak eta *Hijas de Mar* kongregaziokoak joaten ziren meza horretara.

5. Fraide batzuk gogorrangoak

- **Erref:** ONA-091/007
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:11:01. **Bukatu:** 00:13:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Hijas de María kongregazioan mutilekin dantza egitea zen zigortutako bekatu bakarra, ahizpa bien esanetan. Aita Garmendia omen zen fraideen artean gogorrena.</p>

6. Eskolako jolasak

- **Erref:** ONA-091/008
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:13:12. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Sugandilak harrapatzen, zuhaitzetara igotzen, toka-torreka, eta antzeko jolasetan jarduten zen Karmen eskolan. Sabina, berriz, sakaponetan, kilifroka, zazpi harrika eta halakoetan.</p>

7. Eskolak erdaraz

- **Erref:** ONA-091/009
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:15:50. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolak erdaraz izaten ziren, baina Karmenen denborarako ez zituzten zigortzen euskaraz mintzatzeagatik.

8. Dotrina euskaraz

- **Erref:** ONA-091/010
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Arantzazuko Gesaltza baserrian dotrina euskaraz irakatsi zieten fraideek auzoko umeei, baina eskolan erdaraz ikasi zuten dotrina hori.

9. Aita astozaina

- **Erref:** ONA-091/011

- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:21:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Etxean zuten azienda azaltzen du Karmenek. Bere aitak gerra aurretik sei asto ingururekin lanean jardun zuen. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, auzo bereko Azpilletagoikoa baserrikoa.</p>

10. Astozainen lanak

- **Erref:** ONA-091/012
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:21:24. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Aitak bere astoekin Urbiako ermita eraikitze materialak eramane zituen. Kataberako meategietatik Udanako labeetara ere eramane zuen minerala.</p>

11. Araba Menditik ikatza

- **Erref:** ONA-091/013
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:23:30. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Gerraostean, aitak Araba Menditik Kortakogainera (Arantzazurako bidean) ekartzen zuen Orbegozo lantegira joango zen ikatza. Ikazkinentzako ogia Karmenek egiten zuen etxeko labean.</p>

12. Lapurren beldurrez

- **Erref:** ONA-091/014
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:25:55. **Bukatu:** 00:30:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Aita astozainak eta Arantzazuko Errotako Klaudiok elkarrekin egiten zuten lan. Nafarroako mendietan garraio lanetan zihardutela, lapurrekin arazoak ekiditeko, aitari Catalunyako Somaten-ekoek pistola eman zioten. Behin bakarrik erabili behar izan omen zuen arma hori, herritxo batean txakurrengandik defendatzeko.</p>

13. Garraioan eta estraperloan

- **Erref:** ONA-091/015
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:30:29. **Bukatu:** 00:34:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Trenbide konponketa lanetarako materialak garraiatzen zituzten astoekin. Gerraostean idiekin ibili zen aita ikatz garraioan, Arrikurtz baserriko Damasorekin bazkide. Arabatik estraperloan ere asko jardun ziren. Aitak ekartzen zituenak amak kalean saldu edo trukatzeko.</p>

14. Estraperloa eta kupoa

- **Erref:** ONA-091/016
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:34:10. **Bukatu:** 00:36:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gauetz egiten zuten estraperloa. Estraperlistek elkarri laguntzen zioten. Ama Guardia Zibilekin ondo konpontzen zen, etxean merienda batzuk eman eta gero. "Abastos"en inspekzioak, gauzak nola gordetzen zituzten eta kupoarene gorabeherak azaltzen ditu Karmenek.

15. Garia eho eta labesua, gauetz

- **Erref:** ONA-091/017
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:36:45. **Bukatu:** 00:39:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errotak itxita egon zirenean, eskuzko makina batekin ehotzen zuten garia. Zuazolakako errotan gauetz garia ehotzen hasi ziren, eta bertara joaten ziren Aixkirritik. Labesua gauetz egiten zuten. Gaztainak ere entregatu egin behar izaten zituzten.

16. Gaztainak bai, baina oliorik ez

- **Erref:** ONA-091/018
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:39:14. **Bukatu:** 00:42:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gaztainak zeudenean, gaztainak eta salda izaten zen eguneroko afaria. Ardien ilea ere entregatzen zuten. Ogi falta ezagutu zuten, baina goserik ez. Errazionamendua jasotzera kalera joaten ziren. Dirua bazuten, baina erostekorik ez zegoen. Txerrien koipea edota ardien seboa erabiltzen zuten frijitzeko.

17. Errazionamendua

- **Erref:** ONA-091/019
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:42:18. **Bukatu:** 00:43:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamendu-liburuxkak esaten zuena hartzeko eskubidea zuten, baina ordaindu egiten zuten hartutakoa.

18. Etxetik jatetxera

- **Erref:** ONA-091/020
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:43:48. **Bukatu:** 00:47:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Karmen 23 urtera arte egon zen etxean, eta Sabina berriz 18ra arte. Ostalaritzan ekin zioten lanean. Asturiastik Parisera joan zen Karmen. Sabinak ostalaritzan egin zuen lan Parisera joan zen arte. Soldata, zerbitzuaren portzentaia eta propinak irabazten zituzten.

19. Arantzazun lanean

- **Erref:** ONA-091/021
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:47:23. **Bukatu:** 00:50:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Arantzazuko Milikua jatetxean urtebetez egin zuen lan Sabinak. Karmenek Arantzazuko Hospederian egiten zuen lan gogorra azaltzen du.

20. Karmen Arantzazuko Hospederian

- **Erref:** ONA-091/022
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:50:20. **Bukatu:** 00:53:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Hospederiako langileak bertan bizi ziren. Harrera eta sukaldea mojen ardura zen, baina beste lan guztiak langileek egiten zituzten. Mojen oroimen ona gordetzen du Karmenek. Bere lehenengo oporrak, Hospederiako mojek ordaindutako 8 eguneko egonaldia Urbiako Fondan izan ziren.

21. Argindarra baserri guztietan

- **Erref:** ONA-091/023
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:53:34. **Bukatu:** 00:55:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Argindarra eta ura etxean beti ezagutu ditu Sabinak. Arantzazuko baserri guztiek omen zuten argindarra, Zerrajerakoa. Arropak garbitzera errekarara joaten ziren. Neguan arropak uretan eragitera besterik ez ziren joaten errekarara.

22. Gipuzkoako hainbat jatetxetan

- **Erref:** ONA-091/024
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:55:42. **Bukatu:** 00:58:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Sabina Milikuarenetik Bergarara joan zen, senide batzuenaren Zubikoa baserrira. Handik Karmen ahizpa lanean zegoen tokira joan zen, Hernanira. Gero Donostiako Aita Marin ere jardun zuen.

23. Fraideak dantzaren aurka

- **Erref:** ONA-091/025
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:58:03. **Bukatu:** 01:01:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Igandetan herriko auzoetako erromerietara joaten ziren. Arantzazun ez zen igandero dantzarik izaten. Batzuetan, Aixkirri baserri gainean egiten zuten dantzaldia, bertara soinu-jolea ekarrita. Fraideek ez omen zuten onartzen dantzarik Arantzazun.

24. San Juan meza

- **Erref:** ONA-091/026
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:01:05. **Bukatu:** 01:02:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Arantzazuko jaietan ez zen egoten auzoarentzako mezarik. Auzo meza bakarra, auzoak berak ordainduta, San Juan egunekoa izaten zen. Oso polita omen zen, auzoko ume guztiak loreak eta San Juan sendorrak bedeinkatzera eramaten zituztenean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com